

# ABESTIAK

## OLENTZERO

1.

Olentzero begi gorri  
Nondik ate duk  
Arrai hori,  
Zorioneko erreketan  
Arratseko hameketan  
Armariuan xagua  
Haren onduan katua  
Etxe honetako sariakin  
Beteko dugu zakua

2.

O, o, o bihar Olentzero  
I, i, i etzi Eguberri  
Kantatu Ama Birjinari.  
Eguberri berri, nik atorra berri  
Eguberri zar, nik atorra zar,  
Maukarik ez  
Nik axolik ez,

3.

Olentzero guria  
Ezin dugu hase,  
Bakarrik jan dizkigu  
Hamar zerri gazte,  
Saieski eta solomo  
Tripotxa ta odolke  
Horrela janez gero  
bizitzen ahal ttezke  
bizitzen ahal ttezke  
Horra, horra...

4.

Olentzero juantzaigu  
Mendira lanera  
Intentziuarekin  
Ikatza egitera,  
Aditu zuenian  
Jesus jaio zela  
Lasterka etorri omen zen  
Parte ematera  
Parte ematera  
Horra, horra...

5.

Olentzero buru haundia  
Entendimentuz jauntzia  
Bart arratsian edan omen du  
Hamar erruko zagia,  
Ai urde tripa handia  
Ai urde zorro handia

Horra, horra  
Gure Olentzero  
Pipa hartzen duela  
Exerita dago,  
Kapotxuak badauzki  
Arraultzetxuakin  
Bihar merendatzeko  
Botila arduakin  
Botila arduakin

6.

Hemen heldu gerade  
Berri on batekin  
Gure enbajadore  
Olentzerorekin  
Idiak eta astuak  
Beren/eben gurdiekin  
Ezin karrikaturik  
Zagon arduakin

## JAIOTZA

Goazen guztiok  
Belenera  
Ama semeak adoratzera  
Haur horrerri eraiozu lo  
Hotzak hiltzen  
negarrez dago  
Asto idien artean  
Haurra gaixoa penetan  
Meltxor ta Gaspar eta Baltasar  
Belengo portalieta  
Portalieta  
Oi oi oi  
Oh bestak eguberriotan  
Oi oi oi  
Oh bestak eguberriotan